

Elena eta garisagua



Egun, Elenaren urtebetetzea da.

Amak eta Enekok bixkotx handi bat egin diote:
txokolatezko bixkotx handi bat, hauta.

Enekok zortzi **xirio** kontatu ditu : Elenak zortzi
5 urte betetzen ditu egun.

Aita, Ama, Eneko, Amatxi eta Elenaren gozama
mahaian dira.

Elenaren azietan, kutxa ttipi bat, oihalaren azpian
gordea.

10 Elena harrotua da :

– Zer da? Opari bat? Zer da? Ikusi nahi dut !

Elenak xingola kentzen du, kutxa irekitzen eta garrasi bat egiten
du :

– Zein polita den! Zein polita!

15 – Zer da? Nik ere ikusi nahi dut – dio Enekok.

Kutxaren zolan animalia ttipi bat gorderik dago.

– **Garisagu** bat! Zein polita den! Nola deituko dugu? Latz... Ez!
Mamutx? Ene adiskidea izanen da.

Azkenean anai-arrebek erabaki dute :

20 – Kuxkux deituko dugu.

Gaua heldu da. Elenak Kuxkux kaiolan ezarri du. Janaria eta ura
emaiten dizkio eta gero badoa lo egitera.

Baina Kuxkuxek ez du lo egiteko gogorik...

25 Emeki-emeki, bere mutur xorrotzarekin kaiolaren atea altxatzen
du eta kanpora ateratzen da.

– Toki goxo eta beroa nahi dut lo egiteko – dio bere baitan.

30 Poliki-poliki, Elenaren ohe gainera igan eta han, toki goxo eta
beroa atzemaiten du. Gorputza bildurik hor berean, mantaren
azpian, Elenaren matelaren ondoan lokartzen da.

Zein abila den Elenaren laguntzua!

xirio : kandela ttipi. Ezkoz
egin ziri ttikia.
Urtebetetzearen ospatzeko
bixkotxan emaiten da piz-
turik.

garisagua : sagua.

Francas erakundearen *Jeunes années* aldizkaritik egokitua.

1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Zenbat urte betetzen du Elenak?
- Urtebetetzea norekin ospatzen du?
- Zer da Elenaren azietan?
- Zergatik harrotzen da Elena?
- Zerk dio Elenari plazer handiena egiten? Bixkotxak ala garisaguak?

► Gaixo Elena! Garisaguak eskolako liburuko testu bat jan dio. Ea berriz osatzen duzun!

Gaua heldu da. Elenak kaiolan ezarri du. Janaria eta ura dizkio eta gero badoa lo egitera.

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Testua ongi irakurri ondoan, erranaldi hauek idatz izenondoak hutsuneetan emanaz.

goxo, polita, xorrotxa, beroa, abila, hauta

Elenaren bixkotxa nolakoa da?

Kuxkux da.

Haren muturra da.

Toki eta nahi du lo egiteko.

Elenaren laguntzua da.

3 JOKOAK

► Hona urtebetetzearen ospatzeko errezeta bat: txokolate borobilak.

Osagaiak:

- 250 g azukre
- 250 g txokolate-hauts
- 25 g gurin
- bi arroltze zuringo

Nola egin:

- Azukrea, gurina eta txokolatea ongi nahas.
- Bi arroltze zuringo bereizi eta ontsa nahas.
- Orea loditua denean, pilota ttipiak egin.
- Paperezko habietan ezar eta hoztera utz.

4 BESTE LAN BATZUK

► Garisagua zer da? Nolakoa da? Zer jaten du? Non lo egiten du? Hiztegi, entziklopedia edo interneten bila ezazu.

► Etxean animaliarik baduzuia? Zer ote? Nolakoa da? Zer izen du? Haren marrazkia egizu.